



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: PIANO

2024-02-27

Nori zuzenduak?

Graduko Piano interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko otsailaren 20ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Piano interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko errepertorio egokia.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

Marta Zabaleta, Gustavo Díaz eta Miguel Ituarte

Stefanos Nasosen parte hartzearekin

9:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30-14:00 Miguel Ituarte irakaslearen eskutik eskolak jardunaldietan horretarako izena eman duten ikasle aktiboekin

10:30-14:00 Gustavo Díaz irakaslearen eskutik eskolak jardunaldietan horretarako izena eman duten ikasle aktiboekin

15:30-19:00 Marta Zanaleta irakaslearen eskutik eskolak jardunaldietan horretarako izena eman duten ikasle aktiboekin

19:0-19:45 Errepertorio garaikidea irakasgaiaren inguruko saio praktikoa Stefanos Nasos irakaslearen eskutik

20:00 Ikastegiko ikasleen emanaldia

Ordutegi honetaz gain, irakasleek Musikeneko ikasleei ematen dieten eskoletara joateko aukera izango da entzule gisa.

Ikasle aktiboen eskoletarako, lehentasuna izango dute 24-25 ikasturterako sarbide-probak egingo dituztenek. Eskariei inskripzio-ordenaren arabera erantzungo zaie.

Piano jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan José Antonio Candaup Teklatu eta Kantu Departamentuko buruarekin: dpto.tecladocanto@musikene.net